

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen Nazioarteko Eguna ostiral honetan hasiko da ospatzen Tuteran, "Ane eta ohe hegalaria" antzezlanarekin

Emanaldi-sorta Zangozan amaituko da, hilaren 8an, Iruñetik, Lesakatik, Altsasutik eta Tafallatik igaro ondoren

Asteazkena, 2017.eko azaroak 29

[Euskararen Nazioarteko Eguna](#) (abendua 3) ospatzeko programatu diren ekitaldiak "Ane eta ohe hegalaria" antzezlanaren emanaldiarekin hasiko dira abenduaren 1ean Tuteran.

Antzezlan hori beste zenbait udalerritan ere izango da ikusgai, hala nola Iruñean, Lesakan, Altsasun, Tafallan eta Zangozan, Erriberako hiriburuaz gain.


Antzezlanak lo egitea gorroto duen neskatila baten istorioa kontatzen du.

Txikia zenean, amonak ipuinak kontatzen zizkion oheratu aurretik. Protagonistak lau urte beteta, eta amona hilda duela, logelan bakarrik geratzen denean ez du lorik hartu nahi. Gauaren bakardadean, Anek ez ditu begiak itxi nahi, eta etengabe oroitzen da amonak erakutsi zion guztiaz. Esku artean puxtari batzuk hartu eta hitz-joko bat egiten dio bere panpinari, eta, bat-batean, hitz magikoak izango bailiran, Aneren ohea hegan hasten da. Hala, zenbait leku bisitatuko ditu bere ohe hegalarian, eta, ikusleen laguntzaz, zenbait erronka gairak beharko ditu bere logelara itzuli ahal izateko.

Antzerkirako egokitzapen hau bidaia bat da denboran, Nafarroako geografian barrena, haur baten ilusioetan eta familia baten errealitatean.

Antzezlan honetan, ahozko tradizioa, ipuinak, jolasak, formulak eta kantu herrikoiak berreskuratzen dira, XXI. mendeko haurregana irits daitezela.

Sarrera doakoa da, antzeztuko den agertokietako lekua bete arte.



Ane eta ohe hegalaria.



Lanaren eszena.

0 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat dago gomendatuta, eta 45 minutu irauten du.

Antzezlan emateko hautatutako agertokiak

"Ane eta ohe hegalaria" antzezlan musikala, familia-girokoa, udalerrri hauetan emango da:

- Abenduaren 1ean, Tuteran, Fernando Remacha kontserbatorioan, 18:30ean.
- Abenduaren 3an, Iruñean, Zentral Kafe Antzokian, 12:00etan.
- Abenduaren 5ean, Lesakan, Harriondoa Kultur Etxean, 18:30ean.
- Abenduaren 6an, Altsasun, Iortia Kultur Gunean, 17:30ean.
- Abenduaren 7an, Tafallan, Kultur Gunean, 18:00etan.
- Abenduaren 8an, Zangozan, Carmengo auditorioan, 18:00etan.

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearekin eta Iruñeko Udalarekin elkarlanean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko kultur jardueren programa antolatu du.

Bigarren urtez aritu dira bi erakundeak elkarlanean programa hori antolatzeko.

Antzezlanaz gain, beste zenbait ekitaldi ere programatu dira, hala nola Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalurrekoa (Iruñeko Anaitasuna pabiloian), hitzaldiak, musika-kontzertuak eta kultura digitalaren laborategi berri bat.